

## 21. ERREGE BEZPERA

Errege bezperan? Bada, txintzarriekin ibiltzen ginen.

### **Txintzarriekin?**

Gurutzatzen genituen. Ieu! Ieu! Denak eta, etxez etxe, etxez etxe, etxez etxe eta, etxe bakoitzean kantuka atera behar zenuen.

### **Zer kantu?**

Ka... kantatzen zen Eguberrietako kantua eta kantatzen zen, euskaraz dena. Eta, etxe atarian kantatu eta igual esan ahal ziguten: "Bueno, berriz kantatu, e? Gainerakoan, ez dizuet emanen zera, oparirik. Ez dizuet emanen.". Eta berriz kantatu eta denak txintzarriekin hantxe, eta txintzarriak ikusten igual etxeko nagusia, eta denak eta, txikitxo zenari igual esaten zioten: "Ep! Hau gure txintzarria duk! Hau nondik ebatsi duk!" eta negarrez igual bestea hasi eta. Oi, oi! Jaleo batzuk! Ikaragarriak! "Hau gure txintzarria duk, e? Hau nori ebatsi diok?". Eta, majo izaten zen hura.

### **Eta kanta, gogoratzen zara? Kanta zein zen?**

"Agur, agur..." ez da, nola esaten genuen? "Agur, Maria eta sortzez garbia" eta... kantatzen genituen holako zera batzuk.

### **Zerbait gogoratzen duzu?**

Bai, bai, hori bai.

### **Gogoratzen duzuna...**

"Agur, agur, Maria!

Sortzez garbia!"

Eta, hola kantatzen genituen. Bai, eta etxekoak, senar-emazteek eskuak joko zituzten, txalo, eta, gero emanen ziguten opari... zera hutsa... zera batzuk eta, beste etxera eta... izugarri majoa zen hura ere! Oso majoa!

### **Oso polita eguna.**

Oso polita! Herri guztia txintzarrien soinuan eta! Gero, handiek, mutilek, bizkor antza zoazenak eta, haiek egiten zituzten joare handiagoak, eta, zapan! zapan! zapan! zapan! Eta zu holaxe, jarri eta haiei begira eta, gero zerorrenak begiratu eta txikiak zenituela, eta.

Baina... horiek, oso majoa zen! Ohitura hori.